



AKTEA/08

**BERMEOKO UDALEKO TOKIKO GOBERNU BATZARRA
(2023-03-14)**

| | |
|------------------------------|--|
| Batzarraren izaera: | Ohikoa |
| Deialdia | 1. deialdia |
| Data: | 2023-03-14 (Asteartea) |
| Lekua: | Irakaskintza kalea 14-16 (Gizarte eta Kultura Etxeko batzar gela) |
| Hasiera-ordua: | 08:05 |
| Amaiera-ordua: | 08:08 |
| Alkate-Presidentea: | ABAROA CANTUARIENSE ARITZ |
| Batzordekideak: | PLATAS ARENAZA M. IDOYA LEIZAOLA ZULUETA MAITANE ZUMETA GARRO ALAZNE LEGARRETA ERKIAGA IBON |
| Bertaratu ez direnak: | ZUMETA GARRO KEPA |
| Idazkaria: | LEJARRAGA URIARTE JURDANA |



Agiri hau benetakoa dala udalaren egoitza elektronikoan egiaztatu ahal dozu.

Kodea:

07E7000BF81300D6D6J2G0S3I3

Sinadurea eta data

JURDANA URIARTE LEJARRAGA(-Ayuntamiento de Bermeo - Bermeoko Udala)-IDAZKARI NAGUSIA - 14/03/2023
ARITZ ABAROA CANTUARIENSE(-Ayuntamiento de Bermeo - Bermeoko Udala)-BERMEOKO ALKATEA - 14/03/2023
CN=tsa.izenpe.com, ORGANIZATIONIDENTIFIER=VATES-A01337260, O=IZENPE S.A., C=ES - 14/03/2023 13:20:52

DOCUMENTO: 20230784403

Datea: 14/03/2023

Lekua: Bermeon

Erregistro unidaidea:
Erregistro nagusia



Aztergaiak

- 1.- Aurreko akta irakurri eta onestea: 2023-02-28 TGB (07)
- 2.- Batzarkideek gai zerrendako puntuetan interes pertsonalik edo familiarik daukaten adieraztea.
- 3.- Bermeoko Udalaren eta INNOBASQUEren arteko lankidetzeta-hitzarmena sinatzea onartzea.
- 4.- Alkatetza dekretuen berri emotea.
- 5.- Eskari eta itaunak

Alkateak, legezko kopuru nahikoa dagoela ikusita, batzarra hasi du eta jarraian deialdiko aztergaien zerrendan jasota dauden gaiei heldu diete. Emaitza honakoa izan da:

1.- AURREKO AKTA IRAKURRI ETA ONESTEA: 2023-02-28 TGB (07)

Bertaratutako batzarkideek 2023ko otsailaren 28ko 07/2023 akta irakurrita, aho batez onartzea erabaki dute.

2.- BATZARKIDEEK GAI ZERRENDAKO PUNTUETAN INTERES PERTSONALIK EDO FAMILIAKORIK DAUKATEN ADIERAZTEA.

Batzarkideek gai zerrendako puntuetan interes pertsonalik edo familiarik ez daukatela adierazi dute.

3.- BERMEOKO UDALAREN ETA INNOBASQUEREN ARTEKO LANKIDETZETA-HITZARMENA SINATZEA ONARTZEA.

Xedea

Bermeoko Udalaren eta INNOBASQUEren arteko lankidetzeta-hitzarmena (PROFIL AZKARRAK) sinatzea.

Aurrekariak

Lehenengoa: Bermeoko Udalaren ardatz nagusienetarikoa bat herriaren garapen ekonomikoa sendotzea da eta helburu hau lortzeko ezinbestekoa da enpresen



Agiri hau benetakoa dala udalaren egoitza elektronikoan egiaztatu ahal dozu.
Kodea:
07E7000BF81300D6D6J2G0S3I3

Sinadurea eta data

JURDANA URIARTE LEJARRAGA(-Ayuntamiento de Bermeo - Bermeoko Udala)-IDAZKARI NAGUSIA - 14/03/2023
ARITZ ABAROA CANTUARIENSE(-Ayuntamiento de Bermeo - Bermeoko Udala)-BERMEOKO ALKATEA - 14/03/2023
CN=tsa.izenpe.com, ORGANIZATIONIDENTIFIER=VATES-A01337260, O=IZENPE S.A., C=ES - 14/03/2023 13:20:52

DOCUMENTO: 20230784403

Fecha: 14/03/2023
Lekua: Bermeon
Erregistro unidaidea:
Erregistro nagusia



lehiakortasuna bultzatzea.

Bigarrena: Ekimenaren helburu nagusia ETEetan jarduera berritzailea ezagutu, sustatu eta sistematizatzea da, enpresa-sarearen lehiakortasun iraunkorra bultzatzeko eta berrikuntzaren bidez garapen orekatua errazteko tresna gisa. Horretarako, funtsezkoa da ezagutza, metodologiak eta egiaztatutako tresnak izatea, helburu hori lortzen laguntzeko.

Hirugarrena: Laguntza-prozesuaren publiko objektiboa lehentasunezko sektoreetako enpresak izango dira, batez ere ETEak, hau da, industria-eremuak edo industriari lotutako zerbitzuak. Prozesu hori enpresentzako laguntzan gauzatuko da, honako hauen bidez:

- Berrikuntza-profil azkarrak (diagnostikoak) egitea eta/edo
- Berrikuntza-profilak egitea

Laugarrena: Hau dena egiteko, INNOBASQUEk BERMEOKO UDALA – BEHARGINTZA BERMEO-MUNDAKA-SUKARRIETAren esku jartzen ditu entzuteko eta ezagutzeko hainbat tresna, hala nola, “Profil azkarra” (diagnostikoa) eta “Berrikuntza-profilak”, eta “Berrikuntzaren Mapa” bezalako soluzioetarako sarbidea. Tresna horiek inguruko ETEetara hurbiltzeko aukera ematen dute, berrikuntzaren arloan dituzten erronkak eta beharrak identifikatzeko eta lehiakorragoak eta iraunkorragoak izateko dituzten oztopoak gainditzen lagunduko dieten irtenbide zehatzak eskaintzeko.

Bosgarrena: Ekimen honen garapenak, BERMEOKO UDALA – BEHARGINTZA BERMEO-MUNDAKA-SUKARRIETAk eta INNOBASQUEk sinatutako Lankidetzarako Esparru Hitzarmenaren zati gisa, ez du inolako diru-ordainik ezarri tartean dauden bi erakundeentzat.

Seigarrena: 2022ko urriaren 4an, Behargintzako zuzendariak hitzarmenaren justifikatze memoria egin du.

Zazpigarrena: 2023ko martxoaren 6an Idazkaritza saileko AOTk, txosten juridikoa egin du.

Argudioak

Lehenengoa: Toki Erregimena arautzen dauan 7/1985 Oinarri Legeak, honakoa xedatzen dau bere 5. artikuluan, Toki Errejimenaren Testu Bateratua onartzen dauan 781/1986 EDLaren 111. artikulua, Herri Administrazioen Prozedura Adminitratibo Orokorra onartzen dauan 39/2015 Legearen 86. artikulua, Euskadiko Toki



Agiri hau benetakoa dala udalaren egoitza elektronikoa egiaztatu ahal dozu.

Kodea:
07E7000BF81300D6D6J2G0S313

Sinadurea eta data

JURDANA URIARTE LEJARRAGA(-Ayuntamiento de Bermeo - Bermeoko Udala)-IDAZKARI NAGUSIA - 14/03/2023
ARITZ ABAROA CANTUARIENSE(-Ayuntamiento de Bermeo - Bermeoko Udala)-BERMEOKO ALKATEA - 14/03/2023
CN=tsa.izenpe.com, ORGANIZATIONIDENTIFIER=VATES-A01337260, O=IZENPE S.A., C=ES - 14/03/2023 13:20:52

DOCUMENTO: 20230784403

Fecha: 14/03/2023

Lekua: Bermeon

Erregistro unidaidea:
Erregistro nagusia



Erakundeei buruzko 2/2016 Legeak, bere 17. artikuluan, Sektore Publikoko Kontratuen 9/2017 Legeak bere 6. artikulua eta Sektore Publikoaren Errejimen Juridikoa arautzen dauan 40/2015 Legearen 47. artikulua eta hurrengokoak, eta Dirulaguntzen 38/2003 Lege Orokorraren 28.1 artikulua hartu dira kontutan.

Bigarrena: Hitzarmena onartzeko ahalmenari jagokonez, Toki Erregimenaren Oinarriak arautzen dauzen 7/1985 legearen 21.1.s) artikulua araberak, alkateari jagoko ez dagoelako beste organo bateri emonda, baina 2022ko ekainaren 16ko 2.037 zenbakidun Alkatetza Dekretuz onartutako delegazioen ondorioz, ahalmen hori Tokiko Gobernu Batzarrarengan dago delegatuta.

Hirugarrena: Innobasque (irabazi asmorik gabeko erakunde pribatua) eta Bermeoko Udalaren arteko lankidetzaren arteko baldintzak, zehaztea eta hitzartzea ezinbestekoa ikusten da, alde bien betebeharrak eta eskubideak jasotzeko, besteak beste.

Erabakia

Tokiko Gobernu Batzar honek, aho batez, honakoa ERABAKI DU:

LEHENENGOA: "Profil Azkarrak" ekimena egiteko, Bermeoko Udalaren eta INNOBASQUEren arteko lankidetzaren hitzarmena sinatzea.

BIGARRENA: Interesdunari erabagiaren barri emotea, hitzarmena sinatu daien.

HIRUGARRENA: Idazkaritza Sailari erabagiaren barri emotea.

LAUGARRENA: Hurrengo Osoko Bilkurean erabagi honen barri emotea.

4.- ALKATETZA DEKRETUEN BERRI EMOTEA.

Ez da ezer adierazi.

5.- ESKARI ETA ITAUNAK.

Ez da eskaerarik ezta itaunik egin.

Eta aztertzekeo gai gehiago barik, lehendakariak amaitutzat eman du batzarra goiburuan aitatutako ordu, egun eta lekuan, eta eztabaidatutakoa eta erabakitakoa jasota geratu dadin, nik, idazkariak, agiri hau egin eta izenpetzen dudanak, horren



Agiri hau benetakoa dala udalaren egoitza elektronikoa egiaztatu ahal dozu.
Kodea:
07E7000BF81300D6D6J2G0S313

Sinadurea eta data
JURDANA URIARTE LEJARRAGA(-Ayuntamiento de Bermeo - Bermeoko Udala)-IDAZKARI NAGUSIA - 14/03/2023
ARITZ ABAROA CANTUARIENSE(-Ayuntamiento de Bermeo - Bermeoko Udala)-BERMEOKO ALKATEA - 14/03/2023
CN=tsa.izenpe.com, ORGANIZATIONIDENTIFIER=VATES-A01337260, O=IZENPE S.A., C=ES - 14/03/2023 13:20:52

DOCUMENTO: 20230784403
Data: 14/03/2023
Lekua: Bermeon
Erregistro unidaidea:
Erregistro nagusia



fedee ematen dut, lehendakariaren oniritziarekin.

Agiri hau Euskal Autonomia Erkidegoko toki administrazioko zenbakidun paperean jasoko da.

Orrri oinean sinatzailea eta data



Agiri hau benetakoa dala udalaren egoitza elektronikoan egiaztatu ahal dozu.

Kodea:

07E7000BF81300D6D6J2G0S3I3

Sinatua eta data

JURDANA URIARTE LEJARRAGA(-Ayuntamiento de Bermeo - Bermeoko Udala)-IDAZKARI NAGUSIA -
14/03/2023
ARITZ ABAROA CANTUARIENSE(-Ayuntamiento de Bermeo - Bermeoko Udala)-BERMEOKO ALKATEA -
14/03/2023
CN=tsa.izenpe.com, ORGANIZATIONIDENTIFIER=VATES-A01337260, O=IZENPE S.A., C=ES - 14/03/2023
13:20:52

DOCUMENTO: 20230784403

Fecha: 14/03/2023

Lekua: Bermeon

Erregistro unidaidea:
Erregistro nagusia

